

ZIENTZIA KALE-INKESTA

Deskribapena: Kike bata zuriarekin eta arbela batean formula matematikoak dituela kale-inkesta egiten ageri da.

Kike: “Eragiketa hau zuk nola irakurriko zenuke?”

Lehenengo emakumea: “Eh, hori, eh, raiz cuadrada?”

Lehenengo mutila: “X berdin erro bi bider bi ber hiru.”

Lehenengo emakumea: “Bi bider bi eta hori da al cubo baina ez dakit.”

Lehenengo bikoteko gizonezkoa: “Ui, ui, ui, raiz cuadrada dos por dos?”

Bigarren mutila: “Erro lau ber hiru berdin X”.

Bigarren emakumea: “Dos por dos al cubo, eh, raiz cuadrada de esto igual a X”.

Bigarren bikoteko lehenengo neska: “Erro bi bider bi ber hiru berdin X”.

Hirugarren gizonezkoa: “Bi bider bi”.

Laugarren gizonezkoa: “Hau? Eh, bi bider bi ber hiru eta bueno bi erro, bi bider bi ber hiru berdin X”.

Hirugarren gizonezkoa: “Ber hiru, horren erroketa, ez dakit.”

Lehenengo emakumea: “Nere eskolan, orain dela hogeit hamar urte pues dena zen erderaz.”

Bosgarren gizonezkoa: “Dos por dos.”

Kike: “Bai? Euskeraz ez.”

Seigarren gizonezkoa: “Ni eskolan ibilken nitzanik euskaratzen libre probeitu zago.”

Bosgarren gizonezkoa: “Gure denborien erraiten ziguten eskolan ikasi behar nula leitzen, eskribitzen eta lau operaziouak.”

Seigarren gizonezkoa: “Sumar, restar, multiplicar y dividir.”

Lehenengo bikoteko gizonezkoa: “Velocidad edo holako zerbait? La fórmula de la velocidad, edo?”

Hirugarren bikoteko lehenengo neska: “Abiadura berdin espazioa zati denbora.”

Hirugarren bikoteko bigarren mutila: “Bai, bai, berdin. Edo V berdin S zati T.”

Lehenengo bikoteko gizona: “Neri hori ateratzen zait erderaz, bertze gauzak ez miño hori bai.”

Bigarren bikoteko lehenengo neska: “Abiadura berdin espazioa zati denbora.”

Hirugarren gizonetzkoa: “Velocidad, Espacio y Tiempo, ez dakit, hola izan da, ez?”

Laugarren gizonetzkoa: “V berdin S zati T.”

Lehenengo gizonetzkoa: “Abiadura izanen da.”

Bigarren emakumezkoa: “Bai nik ikasi dut erderaz, ta bai lehenbiziko, ba ikusten dunikan, lehenbiziko gauza sartzen dutena buruan da erderaz.”

Kike: “Garbi dago ze hizkuntzatan ikasi den, hizkuntza horretan egiten dira eragiketak.”